










## Ebaluazio-estrategiak

Tresna digitalak erabiltzea ebaluazio formatibo eta batutzaileetarako. Ebaluazio-formatuen eta -metodologiaren dibertsitatea eta egokitasuna hobetzea.

### Jarduerak

- ◆ Ebaluazio-tresna digitalak erabiltzea ikaskuntza-prozesua ikuskatzeko eta ikasleen aurrerapausei buruzko informazioa eskuratzeko.
- ◆ Teknologia digitalak erabiltzea ebaluazio formatiboko estrategiak hobetzeko, hala nola ikasgelan erabiltzeko galdera eta erantzun bidezko plataformak, galdera sortak eta jolasak erabiliz.
- ◆ Teknologia digitalak erabiltzea azterketetan ebaluazio batutzaileak hobetzeko, hala nola ordenagailu bidezko azterketen bidez, audioak edo bideoak erabiliz (hala nola hizkuntzak ikasteko), eta simulazioak edo gai espezifikoetarako teknologia digitalak erabiliz azterketa-ingurune gisa.
- ◆ Teknologia digitalak erabiltzea ikasleen atazak eta ebaluazioak egituratzeko, hala nola eportfolioen bidez.
- ◆ Ebaluazio-formatu digital eta ez digital bat baino gehiago erabiltzea, eta haien onurez eta eragozpenez jabetzea.
- ◆ Modu kritikoan hausnartzea ebaluazio-metodologia digitalen egokitasunaz, eta estrategiak horren arabera egokitzea.

Bilakaera		Gaitasun-mailari buruzko adierazpenak
<b>Hasiberria (A1)</b> 	Teknologia digitalak <b>gutxi erabiltzea</b> ebaluaziorako.	Ez ditut ebaluazio-formatu digitalak erabiltzen, edo oso gutxitan.
<b>Esploratzailea (A2)</b> 	<b>Teknologia digitalak txertatzea ebaluazio-estrategia tradizionaletan.</b>	<p>Teknologia digitalak erabiltzen ditut ebaluazio-atazak sortzeko; gero, ataza horiek paperean ematen dizkiet ikasleei.</p> <p>Ikasleek ebaluazio-atazetarako teknologia digitalak erabiltzea planifikatzen dut, egin beharreko lanen lagungarri.</p>
<b>Integratzailea (B1)</b> 	Dauden ebaluazio-tresna eta -formatu digitalak <b>erabiltzea</b> eta <b>moldatzea.</b>	<p>Ebaluazio formatibo eta batutzailerarako, dauden teknologia digitaletako batzuk erabiltzen ditut; galdera sorta digitalak, eportfolioak eta jolasak, kasu.</p> <p>Ebaluazio-tresna digitalak egokitzen ditut nire ebaluazio-helburu zehatzak sustatzeko, hala nola test bat sortuz test-sistema digital bat erabiliz.</p>
<b>Aditua (B2)</b> 	Ebaluazio-formatu digital <b>multzo</b> bat <b>modu estrategikoan</b> erabiltzea.	<p>Ebaluazio elektronikorako software, tresna eta metodologia batzuk erabiltzen ditut, ikasgelan baliatzeko eta ikasleek eskola ondoren erabiltzeko.</p> <p>Ebaluazio-formatu batzuen artean, ebaluatu beharreko ikaskuntza-emaizarekin hobekien bat datorrena hautatzen dut.</p> <p>Baliiodunak eta fidagarriak diren ebaluazio digitalak diseinatzen ditut.</p>
<b>Liderra (C1)</b> 	Ebaluazio-formatu digitalak <b>alderdi guztiak kontuan harturik</b> eta <b>modu kritikoan</b> hautatu, sortu eta egokitzea.	<p>Ebaluazio-formatu digital eta ez digital ugari erabiltzen ditut, edukiekin eta teknologia-estandarrekin bat, eta jabetzen naiz haien onurez eta eragozpenez.</p> <p>Modu kritikoan hausnartzen dut nola erabiltzen ditudan teknologiak ebaluaziorako, eta estrategiak horren arabera egokitzen ditut.</p>
<b>Aurrendaria (C2)</b> 	Ebaluazio-formatu <b>berritzaileak</b> garatzea, teknologia digitalak erabiliz.	Ebaluaziorako formatu digital berriak garatzen ditut, metodologia pedagogiko berritzaileak islatzen dituztenak eta zeharkako trebetasunak ebaluatzeko aukera ematen dutenak.









## Frogak aztertzea

Ikasleen jarduerari, errendimenduari eta aurrerapausoei buruzko frogak digitalak sortu, aukeratu, kritikoki aztertu eta interpretatzea, irakaskuntzarako eta ikaskuntzarako informazio-iturri gisa.

### Jarduerak

- ◆ Ikasleen jarduerari eta errendimenduari buruzko datuak sortzen dituzten ikasketa-jarduerak diseinatu eta aplikatzea.
- ◆ Teknologia digitalak erabiltzea ikasleen aurrerapausoei buruzko datuak jaso, alderatu eta laburbiltzeko.
- ◆ Jabetzea ikasleek ingurune digitalean egiten dituzten jarduerak datuak sortzen dituztela, irakaskuntza eta ikaskuntza bideratzeko erabil daitezkeenak.
- ◆ Ikasleen jarduerari eta aurrerapausoei buruzko frogak, bai eta erabilitako teknologia digitalek sortutako datuak ere, aztertu eta interpretatzea.
- ◆ Ikasleen aurrerapausoei eta errendimenduari buruzko zenbait frogak-iturri kontuan hartu, konbinatu eta ebaluatzea.
- ◆ Modu kritikoan ebaluatzea eskura dauden frogak irakaskuntza eta ikaskuntza bideratzeko.

Bilakaera		Gaitasun-mailari buruzko adierazpenak
<b>Hasiberria (A1)</b> 	Datu digitalak <b>gutxi erabiltzea</b> aurrerapausoen berri izateko.	Ez dut inoiz erabiltzen baliabide digitalen bidez jasotako daturik nire ikasleen mailaren berri jakiteko, edo ia inoiz ez.
<b>Esploratzailea (A2)</b> 	Ikasleen jarduerari eta errendimenduari buruzko <b>oinarrizko datuak</b> ebaluatzea.	Administrazio-datuak (asistentzia-datuak, kasu) eta errendimenduari buruzko datuak (notak, kasu) ebaluatzen ditut banakako feedbacka emateko esku-hartze zehatzak egiteko.  Jabetzen naiz ebaluazio-tresna digitalak (galdera sortak eta bozkatzeko sistemak, kasu) erabil daitezkeela irakaskuntza-prozesuan, feedback puntuala emateko ikasleen aurrerapausoerik.
<b>Integratzailea (B1)</b> 	<b>Datu</b> digital <b>multzo</b> bat ebaluatzea irakaskuntza bideratzeko.	Ebaluazio digitalen bidez lortutako datuak ebaluatzen ditut ikaskuntza eta irakaskuntza bideratzeko.  Jabetzen naiz ikasleen jarduerari buruzko datuak, haiekin erabiltzen ditudan ingurune digitaletan grabatuta gelditu ahala, lagungarri zaizkidala ikasleen aurrerapausoen berri izateko eta behar denean feedbacka eta laguntza emateko.
<b>Aditua (B2)</b> 	<b>Estrategikoki</b> erabiltzea <b>datuak sortzeko</b> tresna digitalak.	Teknologia digitalak (galdera sortak, bozkatzeko sistemak eta jolasak, kasu) erabiltzen ditut irakasteen, ikasleen aurrerapausoerik buruzko feedbacka izateko.  Darabiltzadan ingurune digitaletan ematen dizkidaten datu-analisirako tresnak erabiltzen ditut jarduerak ikuskatu eta bistaratzeko.  Eskura ditudan datuak eta frogak interpretatzen ditut hobeto ulertzeko ikasle bakoitzak zer laguntza behar duen.
<b>Liderra (C1)</b> 	Datu digitalak erabiltzea ikasteko <b>moldeez</b> eta irakaskuntza-estrategiez <b>hausnartzeko</b> .	Etengabe ikuskatzen dut jardun digitala, eta aldizka hausnartzen dut baliabide digitalen bidez jasotako ikasleen datuez, funtsezko jokabideak eta banakoen arazoak identifikatu eta horiei behar denean erantzuteko.  Erabiltzen ditudan teknologia digital ugarien bidez sortutako datuak ebaluatzen eta laburbiltzen ditut, irakaskuntza-estrategien eta ikaskuntza-jardueren eraginkortasunaz eta egokitasunaz hausnartzeko, oro har eta ikasle talde jakin batzuekin.
<b>Aurrendaria (C2)</b> 	<b>Berrikuntzak egitea</b> datuak sortzeko eta ebaluatzeko moduan.	Datuak sortu eta bistaratzeko metodo aurreratuak, hala nola ikaskuntzaren analisisian oinarrituak, aplikatzen ditut erabiltzen ditudan jarduerak digitaletan.  Datu-iturriak modu kritikoan ebaluatzen ditut, eta haien balioa eta baliotasuna aztertzen dut, bai eta datuak analizatzeko erabili ohi diren metodoen egokitasuna ere.









## Feedbacka eta plangintza

Tresna digitalak erabiltzea ikasleei feedback puntuala eta espezifiko emateko. Irakaskuntza-estrategiak egokitzea eta laguntza espezifiko ematea, erabilitako tresna digitalen bidez sortutako frogetan oinarrituta. Ikasle eta gurasoei tresna digitalen bidez eskuratutako frogak ulertzen laguntzea, eta froga horiek erabakiak hartzeko erabiltzea.

### Jarduerak

- ◆ Teknologia digitalak erabiltzea notak jartzeko eta feedbacka emateko elektronikoki bidalitako atazetan.
- ◆ Ebaluazioak kudeatzeko sistemak erabiltzea feedbacka eraginkortasunez emateko.
- ◆ Teknologia digitalak erabiltzea ikasleen aurrerapausoen berri izateko eta laguntza emateko, behar denean.
- ◆ Irakasteko eta ebaluatzeko modua egokitzea, erabilitako teknologia digitalek sortutako datuak oinarri hartuta.
- ◆ Banakako feedbacka ematea, eta ikasle bakoitzari desberdin laguntzea, erabilitako teknologia digitalek sortutako datuak oinarri hartuta.
- ◆ Ikasleei bide ematea ebaluazio formatiboen, ebaluazio batutzaileen, autoebaluazioen eta berdin arteko ebaluazioen emaitzak ebaluatu eta interpretatzeko.
- ◆ Ikasleei laguntzea hobetu beharreko arloak identifikatzen, eta ikasleekin batera ikasketa-plangintzak egitea, arlo horiei heltzeko.
- ◆ Teknologia digitalak erabiltzea ikasle eta/edo gurasoei bide emateko aurrerapausoen gainean eguneratuta egoteko eta jakinaren gaineko aukerak egiteko etorkizuneko ikaskuntza-lehentasunez, hautazko ikasgaiez edo etorkizuneko ikasketez.

Bilakaera		Gaitasun-mailari buruzko adierazpenak
<b>Hasiberria (A1)</b> 	Datu digitalak <b>gutxi erabiltzea</b> feedbacka emateko eta plangintzarako.	Ez dakit teknologia digitalek nola lagundu diezadaketen ikasleei feedbacka emateko orduan edo nire irakaskuntza-estrategiak hobetzeko orduan.
<b>Esploratzailea (A2)</b> 	Teknologia digitalak erabiltzea eta laguntzaren <b>feedbacka bideratzeko.</b>	Teknologia digitalak erabiltzen ditut ikasleen aurrerapausoei buruzko ikuspegi orokor bat izateko, feedbacka eta aholkuak emateko erabiltzen dudana.
<b>Integratzailea (B1)</b> 	Teknologia digitalak erabiltzea eta laguntzaren <b>feedbacka emateko.</b>	Teknologia digitalak erabiltzen ditut notak jartzeko eta feedbacka emateko elektronikoki bidalitako atazetan.  Ikasle eta/edo gurasoei laguntzen diet ikasleen errendimenduari buruzko informazioa eskuratzen, teknologia digitalek erabiliz.
<b>Aditua (B2)</b> 	Datu digitalak erabiltzea feedbackaren eta laguntzaren <b>eraginkortasuna</b> hobetzeko.	Irakasteko eta ebaluatzeko modua egokitzen dut, erabilitako teknologia digitalek sortutako datuak oinarri hartuta.  Banakako feedbacka ematen dut, eta ikasle bakoitzari desberdin laguntzen diot, erabilitako teknologia digitalek sortutako datuak oinarri hartuta.  Teknologia digitalek erabiltzen ditut ikasle eta gurasoei bide emateko aurrerapausoen gainean eguneratuta egoteko eta jakinaren gaineko aukerak egiteko etorkizuneko ikaskuntza-lehentasunez, hautazko ikasgaiez edo etorkizuneko ikasketez.
<b>Liderra (C1)</b> 	Teknologia digitalek erabiltzea feedbacka eta laguntza <b>personalizatzen</b> .	Ikasleei laguntzen diet hobetu beharreko arloak identifikatzen, eta ikasleekin batera ikasketa-plangintzak egiten ditut, arlo horiei heltzeko, eskura ditudan frogak oinarri hartuta.  Teknologia digitalen bidez sortutako datuak erabiltzen ditut hausnartzeko ea zer irakaskuntza-estrategiak funtzionatzen duen ikasle bakoitzarekin, eta horren arabera egokitzen ditut estrategiak.
<b>Aurrendaria (C2)</b> 	Datu digitalak erabiltzea <b>irakaskuntza ebaluatzeko</b> eta <b>hobetzeko.</b>	Irakaskuntza-estrategiak berriro diseinatzen, berritzen eta haietaz hausnartzen eta hitz egiten dut, aurkitzen ditudan frogak digitalei erantzunez, ikasleen lehentasunei eta premiei dagokienez, bai eta irakasteko esku-hartzeen eta ikaskuntza-formatuen eraginkortasunari dagokionez ere.